

PERNANDORENUMOREAK DUAN NORTASUNA

Gure austzaroan galdetzen zigutenean: "Pernando Amezketarra, nor zan?". Erantzuna azkar igortzen genun: "Illargia pixatu zuana". Zein eta, galdetzean: "Elkano, nor zan?": "Munduaren jiran lenengo aldiz bueltia eman zuana", erantzuten genun gisan.

Pernandok illargia pixatu ordea? Nola zitekean? Ba, bai. Illargia pixatu. Bueno, pixatu, ez gero pixa egiaz. Ori beste gauza bat litzake. Edanez Oria-erreka agortu izan balu ere ezin zitekean orrenbestekorik egin. Bestela illargian ezin zitekeana orrelako legortea. Espunikak ere txalupekin joan bearko ziran. Emen esan nai dedana beste gauza bat da, bere astuntasuna pixatzea. Ta ori ere ezta gutxi.

Bein, Amezketako sagarduntegi batean, ba omen ziran gizonbatzuek eztabaldaka, orriango euskeltzaleak bezela, baña aiek astronomiari buruz. Moda omen zan da. Ta, aiek, matematikekin billutsik ibilliarren, ba omen zitutzen beren erako lojikak gai orreri buruz. Orraitiok, nunbait sakontxo sartu ziralarik, ezin omen zuten erabagi illargiaren astuntasuna. Ortañ, Pernando agertu omen zan, eta orduantze lasaitu gure gizonok;

—I, Pernando; ik aterik aña maratilla dituk eta ai auzi au erabakitzen dekan: illargiak zenbat pixatzen duan nai genukek jakin.

—Illargiak? Ori gauza erreza dek: libra bat.

—Bakarrik?

—Ez, eguzkiarekin geiago. Ara—esanaz, beatza sagardotan bustiaz, irrada biribil bat egin zuan malean, eta ondoren, gurutza bat erditik lau zatitan ebakiz—, or illargi biribilla ta or lau zatitan partitua.

—...? Ta...

—Lau laurden, libria.

Ori zan illargiaren pixua. Gaurki astronomuak ere oraindak pikutan dabilta.

Ezta arritzekoa. Lurretik illargiraño denbora neurria ere ba omen zekin eta. Bein, apaiz gazte zirikatzaile batek galdetu zionean:

—Pernando, bai aldakizu emendik illargira joaten zenbat denbora bearko litzakean?

—Emendik illargira ez Baña, illargitik onera, zerbait esango nuke.

—Bai?

—Bai. Illargian jarriko balitza apaiz gazte bat eguerdiko amabiak laurden gutxiagoan, amabietarako erretorearen etxeko maian zitzakean bazkaitarako prest.

Orrelakoa omen zan Pernandoren umorea. Mutikotan, bere ipui, gertaera ta ateraldiak barra-barra erabiltzen genitun. Eta orduan esaten zan, gure artean, Pernando Amezketarra Plazentziakoa zala. Izan ere, ain parregarria ta ain zirikatzaile trebea, gure buruarentzat ezin zitekean izan beste ifun-goia, Plazentziakoa izan ezik.

Ta, Pernando, euli-errikoa (Amezketak) bazan ere, eztena luze erabili zuan bere denboran. Ain luze eze, gure arteraño eldu dira bere eztenkadak. Baña, bada Sagar-errekako uraren dorratzen bat. Egingo bagenu belaunaldiak gora azterketa bat, laster agiriko litzake Soraluzeko odola bere zainetan. Ta orrek ez ninduke arrituko. Gurasoen gurasoetan plazentziarrak ez arkitzeak arrituko ninduke. Dana dala, eulierrrikoak, eztena luze.

Bertsoak biribillatzen ere ez omen zan mutik txarra.

Gure erriko adiskide batek esan zidan bezela, Pernando Amezketarrak adieraztzen digula, bera bizi zanetik berreun urtera, elektrika baño lenago ere bazirala argiak.

Ikusi besterik ez degu bere umore fiñaren oiartzuna noraño eldu dan. Ta, bere liburua (Gregorio Mujikak idathzia) izango da, noski, auskeraz geien irakurri danetako bat. Eztatik nork esan zuan, umorea osasuna dala. Ta, ori orrela balitza, nik ez dakit Pernando Amezketarran liburuak zelan ezti-ran jartzen botiketan salgai.

Baña, mundua orrela da. Beti okerreko bidetik. Orrenbeste osasungarri zabalzera etorri zan ura, pobre ez-ezik, zorpean bizi bear. Bai tokatu ere areri, Bengoetxea izan bearra bizitza baserria, beti Bengoetxea jaso eziñik ibilli zedin. Arek etzuan oraingo autoak bezela "Irri-par eginzazu arren", esan bearrik. Autorik etzan orduan, baña seguru nago bere astoari orrelakorik etziona jarriko. Etzun ifiori mezedez eskatu bearrik parre argiteko. Oraindak, elektrika garafan ere argi egiten jarraituko du amezketarrak.

Juan San Martín